ENPRESA BERRIAK SUSTATZEKO DIRULAGUNTZAK 2025

Oinarriak 2022ko martxoaren 31ko Osoko Bilkuran onartuta

Sozioekonomia Saila 943003198 enplegu@onati.eus

ENPRESA BERRIAK SUSTATZEKO DIRULAGUNTZAK

PERTSONA EDO ERAKUNDE ONURADUNAK

- Enpresa jarduera berri bat sustatu edo eskualdaketa bidez jarduerari jarraipena ematen dioten pertsona fisiko eta juridikoak.
- BALDINTZAK:
  - ✓ Ekonomia Jardueren Gaineko Zergan (EJZ) Oñatin alta emanda egotea.
  - ✓ Sustatzaileak Gizarte Segurantzan alta emanda egotea.
  - ✓ Zerga-betebeharretan eta Gizarte Segurantzarekikoetan egunean egotea.
  - ✓ Enpresaren tamaina hamar langile baino gutxiago.
  - ✓ Dirulaguntza publikoak eskuratzeko zigorrik edo debekurik ez izatea.
  - ✓ 2024ko urtarrilaren 1etik eta 2025eko ekainaren 30era bitartean alta emandako jarduerak.

ENPRESA BERRIAK SUSTATZEKO DIRULAGUNTZAK

DIRULAGUNTZA MOTAK ETA ZENBATEKOAK

a) Sorturiko lanpostuengatik dirulaguntza:

- Sustatzaileek sorturiko lanpostu bakoitzeko 1.500€.
- Lehen sektoreko jardueren kasuan: 3.000€ sustatzaileko.
- Sustatzailea emakumea denean %30 gehikuntza.
- Dirulaguntza muga onuradun bakoitzeko 6.000€.

BALDINTZAK: Sustatzaileak Oñatin erroldatuta, 6 hilabeteko antzinatasunarekin.

b) Merkataritza sektoreko negozio-lokalen alokairuentzako dirulaguntza:

- Lehenengo urteko alokairu gastuak: 2.500€ max.

BALDINTZAK:

- Merkataritza edo hiri merkataritza jarduerari lotutako zerbitzuak izatea:
  - Jarduera Ekonomikoen Gaineko Zerga alta emandako jarduerak: 64 multzoa (647.3 eta 647.4 epigrafeak izan ezik), 65 multzoa (652.1 epigrafea eta 654 eta 655 taldeak izan ezik), 662 taldea, 97 mutzoa (979.1 epigrafea izan ezik).
- Negozio lokala Oñatiko hirigunean kokatuta.
- Alokairu kontratua eta jardueraren titularitatea sustatzaile berriaren izenean.
- Negozio lokalak pribatuak.
- Jabetza eta sustatzailearen arteko familia edo bazkidetza harremanik ez.

ENPRESA BERRIAK SUSTATZEKO DIRULAGUNTZAK

DIRULAGUNTZEN ESKAERA

- Eskaera aurkezteko epea: 2025eko azaroak 28.
- Zuriketa aurkezteko epea: 2026ko urtarrilak 9.
- Dokumentazioa:

AURKEZTU BEHARREKO DOKUMENTAZIOA

- ✓ Eskaera-orria (E054).
- ✓ Erantzukizunpeko adierazpena (E059 - 1. eranskina)
- ✓ Gizarte Segurantzako alta egiaztagiria.
- ✓ Enpresa proiektuaren aurkezpena edo bideragarritasun azterlana.
- ✓ Kontu korrontearen egiaztagiria agiria.
- ✓ Alokairu kontratua (dagokion kasuan).
- ✓ Alokairu kuoten fakturak eta ordainketa ziurtagiriak (dagokion kasuan).
- ✓ Sozietatearen eratze egiaztagiria (dagokion kasuan)

BITARTEKOTZAKO PLATAFORMATIK ESKATUKO DIREN ZERBITZUAK (uko egiten ez bada)

- ✓ Sustatzaileen NAN edo nortasun agiria.
- ✓ Ekonomia Jarduera Gaineko Zergaren alta egiaztagiria.
- ✓ Gizarte Segurantzan ordainketak egunean izatearen ziurtagiria.
- ✓ Ogasunean ordainketak egunean izatearen ziurtagiria.

ENPRESA BERRIAK SUSTATZEKO DIRULAGUNTZAK

NON ESKATZEN DA?

- Aurrez aurre: Udaletxea Foruen Enparantza 1, 20560 OÑATI
  Ordutegia: 7:30-15:30
- Erregistro elektronikoaren bidez: Pertsona juridikoek bide hau erabili beharko dute (S.L., S.A., S.coop, CB,…)
- Dokumentu honetan jasotako informazioa orientatzeko da. Zehaztasun gehiago izateko oinarrietan kontsultatu.
- Informazio gehiago: 943003198 / enplegu@onati.eus